

GOBERNU BATZARRA

2014. 07. 04

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko uztailaren lauan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
- Ibai Iriarte San Vicente**
- Zinegotziak:**
- Lore Agirre Zipitria**
Rosa M. Urkola Irigoien
- Beh. Beh.Idazkaria:**
- Karmele Contreras Goikoetxea.**
- Kontuhartzaitzako Teknikaria:**
- Paulino Alonso Eraso.**
- 1.- Aurreko akta onartzea.
 - 2.-Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 1. ziurtagiria (FV1-1406-0009 faktura).
 - 3.- Santa Lutziako udal jabetzako lursailean nekazaritzako proiektuentzat hazitegi bat sortzeko hitzarmena.
 - 4.- 2014/906 zk.duen Alkateak emandako dekretua berrestea.
 - 5.- Artxiboko xahuketak.
 - 6.- RE.7 Gorostidi Voith eremuko urbanizatzeko jarduketa programaren aldaketa/ Modificación del programa de actuación urbanizadora del Area RE.7 Gorostidi Voith.
 - 7.- Etxez Etxeko Zerbitzua: Ilarkiren faktura.
 - 8.- Desjabetza bitartez eskuratutako Santa Lutziako T2 Eremuko 5. partzelaren behin betiko ordainketari buruzko hitzarmena.

- 9.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa, 2014ko maiatzeko faktura.
- 10.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Solicitudes de no aplicación del recargo.
- 11.- SUSTARKI, S.L.,ren eskaera. Obra baimena eta EIOZren ordainketa zatikatzea.
- 12.- Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ordainketa zatikatzea: Hainbat eskaera.
- 13.- Gainbalioaren zergaren ordainketa zatikatze eskaera.
- 14.- Korreo 14 lokalari jarritako isunaren ordainketa zatikatze eskaera.
- 15.- Hondakinen bilketa tasa M.A.I.S.S.en eskaera.
- 16.- Ibilgailuen zerga. Hobari eskaera.
- 17.- 19/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko ekainaren 20an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 1. ziurtagiria (FV1-1406-0009 faktura).

Udaleko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez 2014ko martxoaren 28an Campezo Obras y Servicios, SA, enpresari, esleitu zitzaion "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak egiteko" kontratua, 1.612.601,25 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamalauko ekainaren hamaseian, Obren Zuzendaritzak 1. ziurtagiria aurkeztu du, 77.763,59 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Tolosako Amartz auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amartz auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko obren 1. ziurtagiria (fak zkia: FV1-1406-009, Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresarena), 77.763,59 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

3.- Santa Lutziako udal jabetzako lursailean nekazaritzako proiektuentzat hazitegi bat sortzeko hitzarmena.

Nekazaritza proiektuen hazitegia, indarrean dagoen Tolosako planeamenduko T.2-P7 eremuan kokatu nahi da. 1993an behin betiko onartu ziren arau subsidiarioetan eremu hau hezkuntzarako lur eremu hiritar bezala kalifikatu zen.

2005eko uztailan eremu honen zabalkuntza onartu zen eta kalifikazioa kontsolidatu. Baina lur jabeek planeamenduak jasotakoa gauzatzen ez zela ikusirik desjabetza prozesua abiarazi zuten. Prozesu luze honen ondorioz P7 lursaila udalaren esku geratu zen horretarako epaitegiek finkatutako kalte-ordaina ordaindu ondoren.

P7 lursaila 9.695 m² koa da. Mendebaldera N1 errepidearekin muga egiten du, ekialdera Orixe institutuarekin eta hegoaldera Pikoagatik datorren errekararekin. Lur sail hau nahiko laua da eta baratzagintzarako egokia. Hori dela eta, lur hauek inguruko baserritarrek erabili dituzte, beste erabilerarik gauzatzen ez zela ikusirik.

Tolosako udalak Santa Lutzia auzoan baratzagintzarako egokia den lursail bat du. Oraingoan eta epe luze batean ez da aurreikusten planeamenduak jasotakoa gauzatu denik. Horregatik, eta lursail horri erabilera eman nahian, udalak Santa Lutziako lursaila nekazaritza-enpresak sortzeko hazitegian bihurtu nahi du. Nekazari hasi berriek nekazari profesionalak bihurtzeko egin behar duten prozesuan lagunduz. Helburu hori lortzeko, gehienetan lortzen zailenak diren baliabideak, lurra eta komertzializazioarako bideak, eskainiz. Proiektu hau aurrera eramateko beste bi eragilerekin batera hitzarmen bat sinatuko da; Fraisoro eskolarekin eta Tolomendirekin.

Tolosako udalak bere jabetzako den Santa Lutziako lursaila, Baratz Hazitegia proiektua gauzatzera bideratuko du. Helburu horrekin, lursailak prekario izaeraz proiektuari atxikitzeko konpromisoa hartzen du.

Edozein kasutan, lursailaren egungo klasifikazio eta kalifikazio urbanistikoa, "1. Santa Lutzia. Irakaskuntza-Ekipamendua" eremu urbanistikoa dagokion fitxan erregulatuta dago. Horregatik lursailaren erabilera hau, ezinbestean modu prekarioan burutzen den erabilera bezala ulertu beharra dago eta ondorioz, egoera urbanistikoak hala eskatuz

gero edota betebehar edo aukera urbanistiko berriak hala eskatuz gero, Tolosako Udalak atzera bueltan, inolako kargarik gabe, lursailaren behin behineko erabilera hau aldatzeko ahalmena izango du.

Tolosako Udalak nekazari berriek lanean aritzeko beharrezkoak diren zerbitzu minimoak eskainiko ditu; hala nola, ura, argia, komuna, dutxa eta bestelako zerbitzuak alde batetik eta bestetik lursailaren erabilpenerako makinaria eta tresna minimoak bermatuko ditu. Baratza Hazitegiaren baitan sortutako zerbitzuen gastua (ura, argia, ...) ekintzaileen kontura izango dira. Sortu daitezkeen gainontzeko gastuak ere ekintzaileen kontura izango dira, hala nola, makina edo tresnen konponketa tarteko.

Fraisoro Nekazaritza Eskolak, lehen sektore arloko prestakuntza zabala eskaintzen du. Bere eginkizuna nekazaritzari modu aktiboan laguntzea da, sektore honen lehiakortasuna hobetzeko asmoz. Guzti honengatik, Fraisoro Nekazaritza Eskolak interes berezia du nekazaritza ikasketak amaitzen dituzten ikasleek, nekazari profesionalak izan daitezen, Tolosako Udalak eskaintzen duen baratza hazitegi proiektuan parte hartzeko.

Fraisoro Eskola, lursailaren ustiapen baldintzen kudeaketaz arduratuko da. Fraisoro arduratuko da proiekturen eta ekintzaileen jarraipenaz eta ekintzaileen hautaketaz eta aholkularitza tekniko eskainiko du. Behar izan ezkeru ekintzaileei arlo berezietan formakuntza eskainiz proiektua gauzatzen den bitartean, eta baita hazitegi esperientzia amaitu ondoren, geroko proiektu propioaren gauzatzeko unean ere.

Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea da. Tolomendi Elkartearen jarduera eremu fisikoa Tolosaldea eskualdera mugatzen da eta jarduera moten eremua, Elkartearen helburuek, bai orokor eta bai sektorialek, mugatzen dute. Besteak beste elkartearen baitan ekintza desberdinak bultzatu, koordinatu eta gauzatzen dira eta baita diru laguntza desberdinak kudeatu ere. Kontuan izanik Tolosako Baratza hazitegiaren helburua, Tolomendik interes handia du ekimena burutze aldera bere esku dauden bitartekoak jartzeko eta diru laguntza desberdinak emateko.

Proiektuaren ezaugarri desberdinen inguruan lan egiteko, proiektuari jarraipena egiteko, parte hartzaileen hautapen baldintzak zehazteko eta hitzarmen honen inguruan nahiz Baratza Hazitegiaren inguruan sor daitezkeen gai desberdinen inguruan hitz egiteko, Tolosako Udalak, Fraisoro Nekazal Eskolak eta Tolomendik jarraipen batzorde bat eratuko dute.

Hau guztia ikusita eta Ingurumen Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Lankidetzaren hitzarmena.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza eta Obra eta zerbitzuetako departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen departamentuari.

4.- **2014/906 zk.duen Alkateak emandako dekretua berrestea.**

T.P.Peri laguntza ekonomikoa ematea 2014ko apirilaren 29an onartu zitzaion, 2014/622 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez. Laguntzaren kopurua hilean 616,13€-koa zen.

Orain aipatutako Alkatetza Dekretua bertan behera uzten da eta bere ordean, 2014/906 zk.duna jaulkitzen da. Laguntza ekonomikoa berdina da: 616,13€-koa.

Hau kontutan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dute, aho batez, 2014/906 dekretua bertan behera utziz 2014/622 dekretua.

5.- **Artxiboko xahuketak.**

Udal artxiboan urteak ari dira dokumentazioa sailkatu, deskribatu, gorde eta zerbitzen. Orain arte, kopiak, ziurtagiriak eta antzeko agiriez aparte, dokumentazio guztia jaso da beste irizpiderik ez zegoelako.

Orain, Eusko Jaurlaritzak COVASED-DOBAUDA (Comisión para la valoración y selección de documentos Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzardea) sortu zuenetik zenbait lan egin dira administrazioan tramitatzen diren espediente motak aztertu eta xahutu ahal izateko irizpideak emateko.

Une honetan, 135 espediente mota daude onartuta, udaletan aplikatzeko.

Ikusirik zein espediente aztertu eta argitaratu diren eta zeintzuk dauden udaletxeko Aranburu Jauregian eta Hirigintza departamentuan, Gobernu Batzar honek, Kultura batzarordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kultura Batzarordeak egindako proposameneko espedienteak deuseztatzea, hau da ondoren aipatzen direnak:

Obra txikiak 1960-2000, 249 kaxa (EHAA 2012-11-29, kodea 039). Gordeko dira: eraikin historiko, babestutako edota katalogatutakoak, hirigintza-disziplinako bidea eman dutenak eta eskubide prekarioa sortzen dutenak.

Administrazioaren ondare-erantzukizuna 1980-2003, 33 kaxa (EHAA 2012-11-29, kodea 066).

IBI-OHZ padroiak 1992-1993, 4 kaxa (EHAA 2013-02-18), kodeak 079 eta 080). Gordeko dira: 1 eta 6an amaitzen diren urteetako erroldak eta baita zerga ezarri zen lehen urtekoa eta katastroa berraztertzeako urteak ere.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari buruzko padroiak 1992-1993, 2 kaxa (EHAA 2013-02-18, kodea 095). Gordeko dira 1 eta 6an amaitzen diren urteetako erroldak eta bait zerg ezarri zen lehen urtekoa.

Zergetako padroi eta matrikulak (zaborrak, publizitatea, badoak, taxiak, Euskal Herria Plaszako arkuak 1968-1996, 55 kaxa/karpeta (EHAA 2013-06-27, kodeak 124 eta 125). Gordeko dira: 1 et 6an amaitzen diren urteetako erroldak.

Argindar padroiak 1973-1996, 89 karpeta (EHAA 2013-06-27, kodeak 124 eta 125). Gordeko dira: 1 eta 6an amaitzen diren urteetako erroldak.

Ur padroiak 1973-1996, 25 karpeta (EHAA 2013-06-27, kodeak 124 eta 125). Gordeko dira: 1 eta 6an amaitzen diren urteetako erroldak.

Argindar irakurketak 1986-1987, 10 karpeta (EHAA 2013-06-27, kodeak 124 eta 125).

Data-orria eta Kargu-orria, 1987-1994, 4 kaxa (EHAA 2013-02-18, kodeak 077 eta 078).

BIGARRENA.- Espediente hauen lagina gordetzea, nahiz eta serie osoa xahutzekoa izan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Artxibozainari eta Kultura departamentuari.

6.- RE7 Gorostidi Voith eremuko urbanizatzeko jarduketa programaren aldaketa/ Modificación del programa de actuación urbanizadora del Area RE.7 Gorostidi Voith.

Proiektua: RE.7 "Gorostidi Voith" eremuko 2. Egikaritze Unitatearen Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketa.

Talde idazlea: Fiark Arquitectos, SLP.

Sustatzailak: Larramendi Madalen Promozioak eta UTE Arramele.

Dokumentuaren data: 2014ko maiatza

Eskaeraren data: 2014ko maiatzak 6.

Ikusirik, era berean, horren gainean idatzitako txosten juridikoa eta teknikoa, espedientean jasota daudenak, eta

Proyecto: Modificación del Programa de Actuación Urbanizadora de la Unidad de Ejecución 2 del área RE.7 "Gorostidi Voith".

Equipo redactor: Fiark Arquitectos SLP

Promotora: Larramendi Madalen Promozioak y UTE Arramele.

Fecha del documento: Mayo de 2014.

Fecha de la solicitud: 6 de mayo de 2014.

Vistos los informes jurídico y técnico emitidos al respecto y que obran en el expediente, de conformidad con lo

ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeak, 156 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- RE.7 “Gorostidi Voith” eremuko 2.Egikaritze Unitatearen urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketari hasierako onespena ematea ondorengo baldintza hauekin:

1.1.- Oinezkoen pasarelaren kokapen zehatza proiektuarekin batera zehaztuko da.

1.2.- Oinezkoan pasarelaren ezaugarri nagusiak definitzen dituen aurreproiektu bat aurkeztu beharko da.

1.3.- Oinezkoen pasarelaren proiektua aurkezteko epea jartzea, 2015eko abenduaren amaieran.

1.4.- 2. etapa deituriko fasea mugatuko da, hain zuzen ere, 3. partzelaren zonara (eraiki gabe dagoen bakarra), zehazki, “II.3M Etapas de la urbanización y de la Edificación.Modificado” deituriko planoak definitzen duen perimetrora. Horrenbestez, oraingo fasean gainontzekoa urbanizatu beharko da.

Horrela, aipameneko 3. partzela utzi beharko da inolako partzela-itxiturarik gabe, parterre berde modura, lorategizintarri batek mugatuta. Partzela hori eratzekeo jarri beharreko lurrik izan beharko du, gutxienez, erdiko plazako gainontzeko parterretako kalitate bera.

previsto por el artículo 156 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, así como de conformidad con el dictamen emitido por parte de la Comisión informativa de Urbanismo,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar inicialmente, la Modificación del Programa de Actuación Urbanizadora de la Unidad de Ejecución 2 del área RE.7 “Gorostidi Voith” con el siguiente condicionado:

1.1.- La ubicación exacta de la pasarela peatonal se definirá junto con el proyecto.

1.2.- Deberá presentar un anteproyecto en el que se definan las características principales de la pasarela peatonal.

1.3.- El plazo para la presentación del proyecto de pasarela peatonal se fija a finales de 2015.

1.4.- La fase denominada como etapa 2, se circunscribirá en la zona de la parcela 3 (la única pendiente de edificación) exactamente al perímetro definido en el plano “II.3.M Etapas de la Urbanización y de la Edificación. Modificado”, por lo que en la fase actual deberá finalizarse de urbanizar el resto.

Dicha parcela 3 deberá dejarse sin ningún tipo de cierre de parcela, a modo de parterre verde delimitado por un bordillo jardinero. Las tierras a aportar para la conformación de dicha parcela serán, como mínimo, de la misma calidad que el resto de los parterres de la plaza central.

BIGARRENA.- Espedientea hogei egun informazio publikoko tramitera jarrita edukitzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

HIRUGARRENA.- Hasierako onarpenaren erabakia jardueraren eraginpeko ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

SEGUNDO.- Someter el expediente a trámite de información pública mediante la publicación del correspondiente anuncio en el B.O. de Gipuzkoa, por un plazo de veinte días.

TERCERO.- Notificar el acuerdo de aprobación inicial a las personas titulares de bienes y derechos afectadas por la actuación.

7.- Etxez Etxeko Zerbitzua: Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 67,688,43 euroko faktura onartzea, ekaineko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

8.- Desjabetza bitartez eskuratutako Santa Lutziako T2 Eremuko 5. partzelaren behin betiko ordainketari buruzko hitzarmena.

Auzitegi Gorenak behin betiko epaia kaleratu eta gero, Tolosako Udala eta 5. partzelaren lurjabea, egun ordaintzeke leudekeen 600.600,87 €en ordainketa zatikatua burutzeko baldintzak zehazten dituen akordioa sinatzeko prest azaldu dira.

Hitzarmen honen baitan, behin betiko diru kopurua zehaztuz, zorretan leudekeen interes legalak kalkulatu eta ordainketa epeak eta kopuru desberdinak zehaztu egiten dira.

Hitzarmenak, jatorrizko egoerarekiko, ez du kalterik eragiten. Alderantziz, ordainketa baldintza onuragarriak ezartzen ditu Tolosako Udalarentzat.

Azpitarratzeko moduko puntu bakarra honakoa litzateke: bere egunean, espedienteari hasiera eman zitzaionean, lurraren jabeak Jose Antonio Goya Amonarriz, Francisco Javier Goya Amonarriz, Maria Pilar Goya Amonarriz eta Maria Paz Amonarriz Eizmendi ziren eta orain berriz, hitzarmen zirriborroan jaso denez, soilik Maria Paz Amonarriz Eizmendi.

Horregatik, beharrezkoa da 5. partzelaren titulartasun bakar hori egiaztatzea.

Aipatutako kontuan izanik eta Hirigintza teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea hitzarmen proposamena baldintzatuta 5. partzelaren titulartasun bakar hori egiaztatzeari, jabeko erregistroko titularitate ziurtagiriaren bitartez.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea konbenioa sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hirigintza departamentuari eta interesatuari.

9.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa, 2014ko maiatzeko faktura.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa. Atez-atekoa, landa eremuko eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiona.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko maiatzari dagokion faktura 2014/168 (139.787,39 €-koa) aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (maiatzari dagokiona). Kopurua: 139.787,39 €-koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

10.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Solicitudes de no aplicación del recargo.

L. C. A. E. ha interpuesto un recurso de reposición al acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno de fecha 11 de abril de 2014 por el que se desestimaba la alegación sobre la no aplicación del recargo en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

El día 31 de marzo de 2014, el Ayuntamiento de Tolosa notificó a L. C. A. E. el escrito en el que se señalaba que en la vivienda de su propiedad, Araba Etorbidea 2-3 E, no se encontraba nadie empadronado el día 1 de enero de 2014, por lo que se consideraba vivienda vacía a efectos del recargo en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Sin embargo, se le concedía el plazo de 10 días para presentar cualquier alegación que estimase oportuno. En dicho escrito, se hacía hincapié en que no sería suficiente y que no se aceptaría la justificación de vivienda habitual a través de facturas de consumo. De hecho, en junio de 2013, se envió una carta a L. C. A., señalando que para el año 2014 no sería suficiente con la justificación de facturas de consumo.

A pesar de ello, el día 7 de abril de 2014, L. C. A. presentó una alegación, indicando que la vivienda de Araba etorbidea 2-3 E era vivienda habitual de su hijo I. A. G.. Para ello, presentó facturas de consumo. Pero, I. A.G. no estaba empadronado en dicha vivienda.

El 11 de abril de 2014, La Junta de Gobierno acordó por unanimidad aplicar el recargo del 50 % sobre la cuota líquida del Impuesto sobre Bienes Inmuebles a la vivienda con número fijo 3158989 ya que las facturas de consumo no justifican que sea vivienda habitual de su hijo. Contra este acuerdo, ha presentado un recurso de reposición.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 30 de octubre de 2012, y a efectos del ejercicio de 2013, modificó la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral estableció una recarga del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de la uso. Dicha modificación fue publicada en el BOG nº 248, de 31 de diciembre de 2012.

El artículo 14 de las Ordenanzas fiscales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles señala lo siguiente:

“Artículo 14. Consideración de vivienda habitual.

1.- Un bien inmueble destinado a vivienda se considerará como vivienda habitual real si el día del devengo del impuesto consta en el padrón de habitantes de este municipio que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

2.- Para acreditar una vivienda habitual real no recogida en el padrón municipal, se podrá utilizar cualquier declaración de impuestos hecha por cualquier

Administración territorial que tenga competencia en el municipio. En dichas declaraciones, deberá aparecer declarada como vivienda habitual el domicilio sujeto a este impuesto. En caso de contradicción entre declaraciones de impuestos, o si no hubiera obligación de realizar la declaración de impuestos, se podrán presentar otros medios de prueba del sujeto pasivo, arrendatario o receptor de la cesión. Para valorar las declaraciones de impuestos u otros medios de prueba, se realizará un informe razonado que fundamente la decisión tomada por el órgano competente. Se tomará por vivienda habitual real, si se verifica que se pasan más de 183 días al año en el bien inmueble.”

Por todo ello, y teniendo en cuenta que el día 1 de enero de 2014, no había nadie empadronado en Araba Etorbidea 2-3 E y que no han presentado ningún otro medio de prueba para acreditar ser vivienda habitual de I. A. G. (ya que las facturas no justifican ser su vivienda habitual), la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso de reposición interpuesto , y, por tanto, aplicar el recargo en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado.

11.- SUSTARKI, S.L,ren eskaera. Obra baimena eta EIOZren ordainketa zatikatzea.

2014ko ekainaren 20an, L. A. A., Sustarki, S.L, enpresak Kale Nagusia 13an egingo dituen obregatik likidatutako obra baimenaren tasa (3.570,85 €) eta EIOZ (7.517,05 €)-ren ordainketak zatikatzea eskatu du. Denera: 11.087,90 € dira. Lehen erabilerako baimena ematen zaionean ordaindu nahi du dena.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: “Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”

2010ko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulua berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretakoz zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Era berean, fidantza eskatu zaio (11.000 €) eta gehiegizkoa denez, fidantza gutxitzea eskatzen du.

Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen 170 artikuluan zergak, tasak, eskubideak ordaintzea, abalak eskatzea eta gordailatzea arautzen da, eta haren 5. puntutan, udal-lizentziaren xede diren jardunak espazio publikoaren segurtasuneko, zainketako eta mantentze-lanetako, garbiketako, eta abarreko baldintza egokietan gauzatzen direla bermatzearen abalak. Egingo diren obrak 170.-5.C.b "Bestelako obren gauzatze materialerako lizentziak" artikuluan esandakoa bete beharko dute, non, abal horren zenbatekoa, oro har, obren gauzatze materialaren kostuaren %3koa izango da. Udalak gorantz zein beherantz berregokitu ahal izango du ehuneko hori, eta horren zenbatekoa inoiz ez da proiektatutako obren gauzatze materialaren kostuaren %6tik gorakoa izango.

Proiektuko gauzatze materialaren kostuaren %3 da 11.275,56 €, ondorioz jarriko den bermea 11.000,00 € izan da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Sustarki, S.L, enpresari Kale Nagusia 13ko obregatik pasatako obra baimenaren tasaren eta EIO zergaren ordainketa ez atzeratzea lehen erabileraren baimena likidatzen zaion momentura.

BIGARRENA.- Onartzea Sustarki, S.L., enpresari Kale Nagusia 13ko obregatik pasatako obra baimenaren tasaren (3.570,85 €) eta EIO zergaren (7.517,05 €) ordainketa zatikatzea urtebetez (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak).

HIRUGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz berandutze interesak kobratuko dira, banku bermea aurkeztu gabe.

LAUGARRENA.- Ezarri behar duen fidantzaren kopurua ez murriztea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Sustarki, S.L, enpresari.

12.- Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ordainketa zatikatzea: Hainbat eskaera.

J.R.B.ren eskaera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014 urtean, Larramendi kaleko, Madalen kaleko, Uzturre kaleko eta Montetxe kaleko hainbat etxebizitza altan eman ditu eta, ondorioz, 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin Zergak likidatu zaizkie bertako jabeei.

J. R. B. Madalen kaleko 1-6 B etxebizitzaren jabe da. Ondorioz, 3 urteetako Ondasun Higiezin gaineko Zerga likidatu zaizkio:

2012 urtea: 327,55 euro

2013 urtea: 336,75 euro

2014 urtea: 336,98 euro

Denera: 1.001,28 euro

2014ko ekainaren 20an, **J. R. B.**k 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin gaineko zerga (1.001,28 €) urtebetez zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea **J. R. B.**ren eskaera, hau da, 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordainketa (1.001,28 €) urtebetez zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesik ez kobratzea, nahiz eta proposamen teknikoak kontrakoa adierazi.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

.....

M.J.U-M.ren eskaera

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014 urtean, Larramendi kaleko, Madalen kaleko, Uzturre kaleko eta Montetxe kaleko hainbat etxebizitza altan eman ditu eta, ondorioz, 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin Zergak likidatu zaizkie bertako jabeei.

M. J. U. M. Madalen kaleko 2-3 A etxebizitzaren jabe da. Ondorioz, 3 urteetako Ondasun Higiezin gaineko Zerga likidatu zaizkio:

2012 urtea: 328,64 euro

2013 urtea: 337,89 euro

2014 urtea: 338,16 euro

2014ko ekainaren 18an, M^a J. U. M.k 2012 eta 2013 urteetako Ondasun Higiezin gainera zerga (666,53 €) urtebetez zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea M^a J. U. M.aren eskaera, hau da, 2012 eta 2013 urteetako Ondasun Higiezin gainera Zergaren ordainketa (666,53 €) urtebetez zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesik ez kobratzea., nahiz eta proposamen teknikoak kontrakoa adierazi.

.....

Ute-Arrameleren eskaera

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014 urtean, Larramendi kaleko, Uzturre kaleko eta Montetxe kaleko hainbat etxebizitza altan eman ditu eta, ondorioz, 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin Zergak likidatu zaizkie bertako jabeei.

Baltz Ederra- Promotora Zinko Enea, S.L. (UTE Arramele), bertako hainbat ondasun higiezin jabe izanik, 24.926,89 euro likidatu zaizkie.

2014ko ekainaren 26an, J. M. B. A.k, Baltz Ederra- Promotora Zinko Enea, S.L. (UTE Arramele) enpresak 2012, 2013 eta 2014 urteetako Ondasun Higiezin gainera Zergaren ordainketa zatikatzea eskatu du:

- Kopuru osoaren %20 haseran.
- Kopuru osoaren % 80 a 24 hilabeteetan.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 12.000 euro gorako zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 2 urte direla dio, % 20 aurreratu behar dela eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

2010ko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulua berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretako zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke. Kasu honetan, baldintzak betetzen dira, ondorioz, ez da derrigorrezkoa banku bermea aurkeztea.

Hau dena kontutan harturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Zorraren frakzionamendua onartzea ondorengo baldintzetan :

- 1.1.- 24 hilabeteetako frakzionamendua (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak)
- 1.2.- Kopuru osoaren %20eko aurrerakina:4.985,38 euro
- 1.3.- Frakzionamenduak berandutze interesik ez kobratzea, nahiz eta proposamen teknikoak kontrakoa adierazi.
- 1.4.- Ez du banku bermea aurkeztu behar.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

13.- Gainbalioaren zergaren ordainketa zatikatze eskaera.

2014ko martxoaren 17an, **A. A. V.**k lurra auzoa 17an zuen ondasun higiezin bat saldu zuen. Salmentaren ondorioz, zegoen gainbalioaren zerga likidatu zitzaion (755,28 €)

2014ko ekainaren 16an, **A. A. V.**k gainbalioaren zergaren ordainketa (755,28 euro) zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

LEHENA.- A. A. V.k lurre 17ko ofizinarene salmentaren ondorioz likidatutako gainbalioaren zergaren ordainketa (755,28 euro) zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

14.- Korreo 14 lokalari jarritako isunaren ordainketa zatikatze eskaera.

Korreo 14-behean dagoen lokalari (Kebab jatetxea), 300 eurotako isuna ezarri zitzaion dagokion ordutegia ez errespetatzeagatik. Ordainketari aurre egin ezin diola eta, A. R. R.-ek ordainketa 4 epeetan zatikatzea eskatu du 2014ko ekainaren 20an.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- A. R. R.ri ukatzea Korreo 14 beheko lokalean ordutegia ez betetzeagatik jarri zaion isunaren ordainketa (300 euro) 4 hilabeteetan zatikatzea.

BIGARRENA.- A.R. R.ri, Korreo 14 beheko lokalean ordutegia ez betetzeagatik jarri zaion isunaren ordainketa (300 euro) 3 hilabeteetan zatikatzea.

HIRUGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (eranskinan azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratuko dira.

15.-Hondakinen bilketa tasa M.A.I.S.S.en eskaera.

2014ko ekainaren 27an, M^a A. I. S. S.ek hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren hobaria eskatu du.

Hondakinen bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskinaren 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek, edo gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituenak.

Hobaria jaso nahi dutenek martxoaren 31 baino lehen aurkeztu behar dute eskaera, bizikide unitatearen diru-sarrerak egiaztatzen duen agiriarekin batera.

M^a A. I. S. S. ren eskaera epez kanpo egin da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- M.A.I.S.S.eri ez ematea eskatutako hondakinen bilketa tasaren hobaria .

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

El 27 de junio de 2014, M^a A. I. S. S. ha solicitado la bonificación de la tasa de recogida de residuos.

Las bonificaciones de las tasas de recogida de residuos vienen reguladas en las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades de las Ordenanzas Fiscales. Concretamente, en el artículo 5º del Anexo 2.1.6.

En él se dispone que los sujetos pasivos que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o que cumplan los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de residuos.

Para poder gozar de esta bonificación las personas interesadas deberán solicitar su concesión antes del 31 de marzo junto con la justificación de los ingresos de la unidad convivencial.

La solicitud de M^a A. I. S. S. ha sido presentada fuera de plazo.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Denegar a M.A.I.S.S. la bonificación de la tasa de recogida de residuos solicitada.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y a la interesada.

16.- Ibilgailuen zerga. Hobari eskaera.

Ekainaren 10ean, O. T. C.k Ibilgailuen gaineko Zergan %50-eko hobaria eskatu du BI-3211-AH eta LO-018044 ibilgailuentzat, 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna dutelako.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

El 10 de junio de 2014, O. T. C. ha solicitado la bonificación del 50 % en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del vehículo BI-3211-AH eta LO-018044, por tener una antigüedad superior a 25 años.

De conformidad con el art. 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.- O. T. C.ren izenean matrikulatutako BI-3211-AH eta LO-018044 ibilgailuei 2015 urterako %50eko hobaria onartzea Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan, zergaren sortzapen egunean hogeita bost urteko antzinatasuna dutelako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la bonificación del 50% de la cuota del Impuesto sobre vehículos a los vehículos BI-3211-AH eta LO-018044 el año 2015, matriculados a nombre de O. T. C. , por tener una antigüedad superior a 25 años el día del devengo del impuesto.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado.

17.- 19/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **19/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **371.781,54€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **19/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Beotibar Pilotalekuko aldagelak erreformatzeko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeko baldintza pleguak onartzea.

Ikusita Beotibar Frontoiko aldagelak zaharberritzeko proiektua, Udal Bulego Teknikok idatzia 2014ko ekaineko datarekin.

Ikusita aipameneko proiektuko obrak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeko klausula administratibo partikularren agiria, eta Hirigintza Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Beotibar Frontoiko aldagelak zaharberritzeko proiektua, Udal Bulego Teknikoak idatzia 2014ko ekaineko datarekin.

BIGARRENA.- Onartzea Beotibar Frontoiko aldagelak zaharberritzeko proiektuan jasota dauden obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientea. Lizitazio tipoa da 86.750,03 euro 8BEZa barne).

HIRUGARRENA.- 86.750,03 euroko gastua dagokion partidaren kargura izango da.

LAUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko obrak kontratatzeko, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria.

Bi mila eta hamalauko maiatzaren 27an M.C.M.S.k eskatu du familia ugarietara aplikatzen zaien Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kuotako hobaria.

El 27 de mayo de 2014, M.C.M.S. solicitó la bonificación en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a las familias numerosas.

Ordenantza fiskalaren 8. artikuluko 2. atalak esaten du hobari honetaz gozatzeko subjektu pasiboak eskatu egin beharduela, eta eskaera otsailaren 28 baino lehen egin behar

El apartado 2 del artículo 8 de la Ordenanza Fiscal señala que el disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y que la solicitud deberá realizarse

dela.

Gobernu Batzarrak, 2014ko maiatzaren 30ean, eskaera epez kanpo egiteagatik, hobaria ez onartzea erabaki zuen.

Ekainaren 25ean, M.C.M.S.ak erabaki horren aurka birjarpenezko errekurtsioa aurkeztu du, zailtasun ekonomikoak dituela adieraziz eta berriz ere ondasun Higiezin gaineko zergan familia ugaria izateagatik hobaria emateko eskatuz.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Deuseztatzea aurkeztutako birjarpen errekurtsioa, azalpen atalean agertzen den arrazoiagatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

Hondakinen bilketa tasa: L.G.M.en eskaera.-

Bi mila hamalauko apirilaren 2an, L.G.M.ek hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren hobria eskatu zuen.

Hondakinen bilketako tasen hobaiak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskinaren 5. artikuluan.

antes del día 28 de febrero.

Por ello, la Junta de Gobierno, con fecha 30 de mayo de 2014, acordó denegar la bonificación por haber sido solicitada fuera de plazo.

El pasado 25 de junio, M.C.M.S. ha interpuesto recurso de reposición contra dicho acuerdo, indicando que tiene dificultades económicas y solicitando de nuevo la bonificación de familia numerosa en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Teniendo en cuenta lo indicado, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso de reposición interpuesto por el motivo señalado en la parte expositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y a la interesada.

El 2 de abril de 2014, L.G.M. solicitó la bonificación de la tasa de recogida de residuos.

Las bonificaciones de las tasas de recogida de residuos vienen reguladas en las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades de las ordenanzas Fiscales. Concretamente, en el artículo 5º del Anexo 2.1.6.

Bertan, adierazten da hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobia izango dutela lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek, edo gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituenak.

Hobaria jaso nahi dutenek martxoaren 31 baino lehen aurkeztu behar dute eskaera, bizikide unitatearen diru arrerak egiaztatzen duen agiriarekin batera.

Gobernu Batzarrak, 2014ko maiatzaren 23an hobaria ez ematea erabaki zuen eskaera epez kanpo egin zelako.

L.G.M.k adierazi du ez dagoela ados akordio horrekin. Gobernu Batzarrak, ordea, berretsi egin du akordio hori, azal atalean agertutakoa kontutan hartuz.

En él se dispone que los sujetos pasivos que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o que cumplan los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantías de ingresos e inclusión social gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de residuos.

Para poder gozar de esta bonificación las personas interesadas deberán solicitar su concesión antes del 31 de marzo junto con la justificación de los ingresos de la unidad convivencial.

La Junta de Gobierno, el 23 de mayo de 2014, acordó no conceder la bonificación por haber realizado la solicitud fuera de plazo.

L.G.M. ha mostrado su disconformidad a dicho acuerdo. Sin embargo, la Junta de Gobierno se ratifica en dicho acuerdo, en base a lo señalado en la parte expositiva del presente acuerdo.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh.IDAZKARIA